



# Unitate Didaktikoa

Ikasgai kurrikularretan aplikatzekoa

ZERUERTZ. HEZKUNTA ETA SENTSIBILIZAZIO INTERKULTURALA DBHKO IKASLEENTZAT

## Plastikako, ikusizko eta ikus-entzunezko hezkuntza

01. Datu orokorrak
02. Funtsezko konpetentziak, konpetentzia espezifikoak, ebaluazio irizpideak eta oinarriko jakintzak.
03. Jardueraren deskribapena
04. Baliabideak eta materialak



ZERUERTZ



# Datu orokorrak

**TITULUA:** Kulturantzatasuna artean

**ETAPA:** Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

**ZIKLOA:** 3. zikloa

**DENBORALIZAZIOA:** Jarduera hau egiteko, ikasgelan 2 lan-saio egin behar direla uste da (1. Zereginaren sarrera eta prestaketa; 2. Bateratze-lana eta talde-hausnarketa). Horri gehitu beharko zaio ikasgelatik kanpo elkarriketa planifikatu eta egiteko behar den denbora, ikasleek beraiek balioetsitako premien arabera zehaztuko dena.

Jarduera hau ikasturtean zehar egin daiteke, gai horri esleitutako beste zeregin batzuekin batera.

## JARDUERAREN DESKRIBAPENA ETA EDUKIAK

- Adierazpen artistikoari buruzko esplorazioa hainbat herrialdetan.
- Migratutako pertsonen beren jatorrizko herrialdeetako arteari buruzko elkarriketak egitea.
- Kultura-jatorriak arte-adierazpenean eta/edo kultura-aniztasunak artean duen eraginaz gogoeta egitea.

## HELBURUAK

- Hainbat herrialde eta kulturatako aniztasun artistikoa ezagutzea eta balioestea.
- Migratutako persona bati elkarriketa bat egitea, bere jatorrizko herrialdeko arte-adierazpide nagusiak aztertze.
- Migratuekiko eta haien kulturekiko enpatia sustatzea.
- Komunitateetako kultura-aniztasunaren funtsari eta horrek identitate kolektiboan duen eraginari buruz hausnartzea.

ZERUERTZ



# Funtsezko konpetentziak, konpetentzia espezifikoak, ebaluazio irizpideak eta oinarrizko jakintzak

## FUNTSEZKO KONPETENTZIAK

- Hizkuntza Komunikaziorako Konpetentzia (HKK)
- Konpetentzia Pertsonala, Soziala eta Ikasten Ikastekoa (KPSII)
- Konpetentzia Digitala (KD)
- Herritar Konpetentzia (HK)
- Ekimenerako Konpetentzia (EK)
- Kulturaren Kontzientzia eta Adierazpenerako Konpetentzia (KKAK)

## KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK ETA EBALUAZIO IRIZPIDEAK

**1.KONP.ESP.:** Ulertzea zer garrantzi izan duten, gizakiaren garapenean, adierazpen kultural eta artistikoen artetik aukeratutako zenbait adibidek; eta ondarearekiko interesa izatea, kulturaren beraren parte den aldetik. Horrek bidea emanen du, batetik, ulertzeko nola bihurtzen diren adierazpen horiek pertsona bakoitzaren nahiz gizarte osoaren balioen eta sinesmenen lekukotza, eta, bestetik, konturatzeko horiek babestu eta zaindu beharra dagoela.

**1.1.EBALU.IRIZ.:** Jakitea zein diren ekoizpen plastiko, ikusizko eta ikus-entzunezko garrantzitsuenen inguruabar historikoak eta sozialak, baita haien funtzioa eta xedea ere; eta haien ezaugarri bereziak deskribatzea, balioak eta uste sendoak transmititzeko bidea diren aldetik, hori guztia interesa eta errespetua izanik, eta genero-ikuspegia txertatuta.

**1.2.EBALU.IRIZ.:** Balioestea ondare kulturala eta artistikoa zaintzearen garrantzia, artelanak gidaturik ezagutu eta aztertuta; eta hori erabiltzea norbera aberasteko iturri gisa sorkuntza-lan propioak egitean, zeinetan adieraziko baitira norberaren kultura identitatearen alderdi batzuk.

**2.KONP.ESP.:** Norberaren ekoizpen plastikoak, ikusizkoak eta ikus-entzunezkoak azaltzea, eta horiek alderatzea bai bere parekoen ekoizpenekin bai ondare kultural eta artistikoko beste batzuekin ere, eta iritziak justifikatzea, kontuan izanik zer bilakaera izan den ekoizpena egitea pentsatu zenetik hura gauzatu arte. Horren guztiaren helburua da, batetik, balioestea trukea, baterako bizipenak eta kulturarteko elkarriketa eta, bestetik, estereotipoak gainditzea.

**2.1.EBALU.IRIZ.:** Ekoizpen artistiko batzuk aztertzea, -norberarenak eta parekoenak barne-gidatuta, munduaren gaineko ikuspegi estetikoak garatzea, interesa izanik eta modu irekian, eta errespetatzea adierazpen kultural askotarikoak.

**2.2.EBALU.IRIZ.:** Azaltzea, arrazoiak emanez, zer garrantzitsua den errealitatea, iruditeria eta ekoizpena lotzen dituen prozesua, probatzea norberak estetikaz goatzeko duen gaitasuna, eta, hori egitean, errespetatzea adierazpen askatasuna eta kultura aniztasuna, eta gainditzea estereotipo sexistak, diskriminatzailerak eta ez-solidarioak.

**3.KONP.ESP.:** Proposamen plastikoak, ikusizkoak eta ikus-entzunezkoak aztertzea, eta, hori egiten, errespetua erakustea eta garatzea behatzeko gaitasuna eta esperientzia nahiz gozamen estetikoak baneratzeko, banakako kultura artistikoa aberasteko eta iruditeria elikatze.

**3.1.EBALU.IRIZ.:** Jakin-minez eta errespetuz behatzea adierazpen plastikoak gauzatzeko hainbat modu, iruditeria elikatuko duen kultura artistiko eta ikusizko ahalik eta zabalena eraikitze; hautatzea haien intereseak diren adierazpen artistikoak, edozein mota eta garaitakoak, eta aztertzea, kritikoki, ea estereotiporik badagoen.

**4.KONP.ESP.:** Esploratzea zenbait ekoizpen kultural eta artistikoren teknikak, hizkuntzak eta asmoak; aztertzea, modu irekian eta errespetuz, bai prozesua, bai bukaerako produktua, baita haren harrera eta testuingurua ere, deskubritzeko zer aukera eskaintzen dituzten ideien eta erantzunen sorburu diren aldetik.

**EBALU.IRIZ.:** Irakasleen lehentasunaren arabera.

**6.KONP.ESP.:** Ingurune erreferentzia kultural eta artistikoez jabetzea, eta haien berezitasunak identifikatzea, norberaren sorkuntza-lanak aberasteko eta identitate pertsonala, kulturala eta soziala garatzeko.

**6.1.EBALU.IRIZ.:** Testuinguru kultural jakin bateko kide dela azaltzea, eta, horretarako, aztertzea zer alderdi formalek eta zer faktore sozialek baldintzatzen dituzten egungo ekoizpen kultural eta artistiko batzuk.

**6.2.EBALU.IRIZ.:** Nork bere bizipenak eta munduari buruz duen ikuspegia sormenez irudikatzea, ingurune erreferentzia kulturalak eta artistikoak erabilia, norberaren autoestimua eta

norberaren zein parekoen ezagutza arian-arian handitzea, eta harremanak izaten eta gizartean kokatzen ikastea.

## OINARRIZKO JAKINTZAK

### A. ONDARE ARTISTIKOA ETA KUTURALA

**A.2.** Adierazpen kultural eta artistikorik garrantzitsuenak, garaikideak eta tokiko ondarekoak barne: alderdi formalak eta testuinguru historikoarekin duten lotura.

ZERUERTZ



# Jardueraren deskribapena

## 1. FASEA. SARRERA (IRAKASLEEN ALDETIK)

Migrazioaren gaia aurkeztea, eta ikasleak motibatzea kultura-aniztasunaren garrantziaz eta horrek artean duen eraginaz hausnartzera.

- Horretarako, irakasleak *DBHko ikasleekin kulturartean hezteko eta sensibilizatzeko gida didaktikoan* oinarritu ahal izango dira ezagutza transferitzeko. Gida hori Zeruertz-eko taldeak egin zuen, ele bitan (gaztelaniaz eta euskaraz), 2022ko edizioan.

## 2. FASEA. IKASLEAK ELKARRIZKETARAKO PRESTATZEA

Fase honetan, irakasleek egin beharreko jarduera sartu beharko diete ikasleei; hau da, elkarrizketa bat egin beharko diete migratutako pertsonari. Ikasleek inguruko pertsona migratu bat elkarrizketatu beharko dute, guri dagokigun gaiari buruz, arteari buruz.

Elkarrizketa prestatzeko eta munduko herrialde guztietan dagoen kultura-aniztasunari buruzko testuinguru teoriko bat sortzeko, ikasleek ikertu egin beharko dute zein den artearen adierazpena herrialde desberdinetan, oro har, eta elkarrizketatutako pertsona migratuaren jatorrizko herrialdean, bereziki. Ekintza horrek aukera emango dio ikasleari irekitasun-posizio batean jartzeko, jakin-min-egoera bat sustatzeko, hurrengo zeregina errazteko, hau da, elkarrizketan adierazitako galderak egiteko.

## 3. FASEA. ELKARRIZKETA PERSONA MIGRATU BATI

Eskuratutako ezagutzatik abiatuta, ikasleek galdera-gidoi bat prestatu beharko dute elkarrizketa zuzentzeko. Aurkezpenaz, migratutako pertsonaren sarrera gisa, eta agurraz gain, elkarrizketatuari egingako ekarpena eskertzeko, artearekin inguruko galderak egingo dira elkarrizketaren atalean.

Ondoren, elkarrizketa hau egiteko laguntza eta adibide gisa, galderen zerrenda bat eskaintzen da [1. eranskinean](#), ikasleek, edozein ikasturtetan daudela ere, beren interesa eta lehentasuna kontuan hartuta, elkarrizketa gidatzeko orientabide bat aukeratu ahal izan dezaten.

#### 4. FASEA. ELKARRIZKETEN AURKEZPENA ETA HAUSNARKETA-EZTABAIDA IKASGELAN

Elkarrizketa egin ondoren, interesgarria izan liteke ikasgelan espazio bat bilatzea, esperientzia horien trukea eta ikasleen arteko elkarrizketen ondoriozko pertzepzioak sustatzeko. Horretarako, ebaluazio-modu gisa proposatzen da bai elkarrizketaren aurkezpena, bai hortik eratorritako esperientzia.

Era berean, ikasleen azalpenaren ondoren, taldekako eztabaida bat sustatuko da kulturartekotasunari eta arteari buruz, bai eta jarduera hori egiteak ikasleengan izan duen eraginari buruz ere.

ZERUERTZ



# Baliabideak eta materialak

## BEHARREZKO BALIAKIDEAK

- Interneterako sarbidea eta ikerketa-materiala (irakasleek baloratu beharrekoa).
- Elkarriketak grabatzeko gailu elektronikoa, beharrezkoa bada, ondorengo aurkezpen-lana errazteko.

## IRAKASLEENTZAKO MATERIAL GEHIGARRIAK

- [Aula Intercultural](#)
- [Ministerio de Educación y Formación Profesional](#)

ZERUERTZ





# 1. eranskina. Eredu-galderen zerrenda

1. Zer esan nahi du arteak zuretzat eta nola lotzen duzu zure jatorrizko kulturarekin?
2. Zer arte mota gustoko duzu zure aisialdian gozatzea edo praktikatzea?
3. Zer garrantzi du arteak zure jatorrizko kulturean?
4. Ba al dago adierazpen artistiko ohikoren bat zure herrian? Hitz egin diezadakezu horren inguruan?
5. Artearen zer alderdik laguntzen dizu zure kulturarekin edo beste kultura batzuekin konektatzen?
6. Parte hartu al duzu zure herrialdeko arte-talderen batean? Kontatuko zenidake nolakoa izan zen esperientzia hori?
7. Zure kulturako zein artistak inspiratzen zaitu?
8. Harrerako herrialdeko artea ezagutzeagatik izan al duzu ikasketarik?
9. Zer baloratzen edo estimatzen duzu beste kultura edo herrialde batzuetako arteaz?
10. Zer arte mota ezagutu edo esploratu nahiko zenuke?
11. Zer erronka aurkitzen duzu zure herrialdeko adierazpen artistikoa beste kultura-testuinguruetan adieraztean?
12. Zure ustez, zer eginkizun du arteak integrazioan eta kulturarteko bizikidetzan?
13. Ezagutzen al duzu kultura-aniztasuna sustatzen duen jarduera edo ekimen artistikorik?
14. Zure ustez, zer erronka edo proposamen daude kulturarteko artea sustatzeko?
15. Zein mezu edo hausnarketa partekatu nahiko zenuke arteari eta migrazioari buruz?

ZERUERTZ

